

JOSEBA LARRATXE BERAZADI, ALTZA PORRUZ

"Ez fidatu esku garbiak dituen marrazkilariaz"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Arantxa Iturberen ipuin baten moldaketa egin duzu *Altza Porrun*. Baratzeak ez al zaitu nahikoa inspiratu istorioren bat asmatzeko?

Egia esan, erabat *kalekumetartuta* nago. Etxean lorategia bai, baina inoiz ez dugu baratzerik izan, eta lagunaren baten baratzean laguntzen saiatu naizen guztietan patatak aitzurrarekin erdibitzea besterik ez dut lortu. Beraz, Jakobak elkarlan hau proposatzean, korrika jo nuen *Bizi Baratzea* liburura inspirazio bila. Eta kasualitatez (edo ez), liburuaren sarre-rako Arantxaren ipuinetan lotura bat ikusi nuen.

"Beguratu eta ez ikusi" izena du zure kontakizunak. Zer da ikusten ez duguna, ba? Bueltatzen emango diot galderari: zer da ikusten duguna? Azalekoa, normalean. Kosta egiten zaigu aurreiritzietatik harago sakontzea. Sarritan esaten digu Jakobak landareak ere jendea direla. Eta beti hor ditugunez, zelatan, suposatzen dut haiek guk baino gehiago ikusten dutela, begirik izan ez arren.

Baratzeari eta baratzkiei begira denbora asko pasatu al duzu *Altza Porru*ko marrazten hasi aurretik?

Nire komikiko bineten hondoan baratze bat ageri da, eta izerdi ederrak bota ditut hanka-sartzerik ez egiteko. Adibidez, garai desberdinetan landatzen diren bi baratzki batera ez marrazteko. Nola ez, *Bizi Baratzea* alboan izan dut lagungarri.



Hilketa bat ezkutatzeko toki egokia dirudi baratzeak, ezta?

Ez dakit oso egokia den, baina esango nuke ohikoa izan daitekeela. Horrenbeste estimatzen dugu intimitatea, asko zer ezkutatzaren den bizilagunaren hormen atzean. Hor ere, begiratu eta ez ikusi.

Zikintzen al ditu Joseba Larratxek eskuak lurrez noizbait? Edo margoen tintaz soilik...

Haurra nintzela *silbestreagoa* nintzen, baina aspaldi da eskuak ia tintaz bakarrik zikintzen ditudala. Hori bai, ez zaitezte fidatu esku garbiak dituen marrazkilaria batez.

Liburuko egileen aurkezpenean kalabaza aurpegia jarri dizute. Sentitzen al zara identifikatuta?

E! E! E! Kalabaza ez, KALABAZINA! Kalabaza baino puskar lirainagoa eta lerdinagoa. Ez dakit Asiskok zer zuen buruan kalabazinarekin pare marraztu ninduenean, baina espero dut nire aurpegi gazteagatik izatea... Forma falikoa-rena erabat anekdotikoa da. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Urriak 21: Hondarribia

18:00etan, Endanea Garden Centerren (Jaizubia auzoa 40).

Urriak 23: Bera

Lurraren Eguna Azokan.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545